



# KESak enpresan duen garrantzia

## SARRERA

KESa enpresako etiketaren ikerketan guztiz txertaturiko kontzeptua da, eta beraz, enpresaren beraren orokortasunean sartuta dago. Baina, gainera, enpresa baten jarduketa irizpide etiko eta sozial arduratsuen arabera izan behar dela esatean, jokabide hori eremu eta egintza zehatzetan gauzatu behar da.

KES kontzeptuaren zabalera modu nabarmenean adierazteko, enpresaren jarduketa eremu guztiak aztertu behar dira. Agiri honen helburua enpresaren jarduketa eremu asko zehaztea eta horiek jokabide arduratsuekin duten lotura adieraztea da; horrela, argi ulertuko dugu KESak ikuspegi orokorra izan behar duela, enpresa estrategiaren barruan integratutako ikuspegia (eta ez ekintza zehatz batzuk); gainera, ondo ulertu behar da KESak alderdi zehatzak eta enpresetan egunero lortzeko modukoak jorratzen dituela.

Kontuan hartu behar da enpresaren erantzukizun sozialari lotutako alderdi asko enpresaren ohiko jarduerak direla, aspalditik sustatzen diren baina KESarekin identifikatzen diren jarduerak. Alderdi horiekin guztiekin batera, beste alderdi berri batzuk ere badira, eta horiek ideiak eskain ditzakete KESa enpresa bakoitzean ezartzeko.

Halaber, esan behar da enpresa bakoitzak kasu berezia osatzen duela. Aipatutako eremu batzuk ez dira aplikagarriak izango enpresa txiki askotan, horien neurriak horretarako aukera eman ez edo derrigorrezkoak ez direlako. Era berean, enpresa bakoitzaren egoera bera aintzat hartuta, errazagoa izan daiteke hemen azaldutako ideiak gauzatzea. Horrenbestez, agiri hau ez da aplikazio orokorreko errezeta, irekitako atea baizik, enpresa bakoitzak ekintzarako eremu egokia eta KESa ulertzeko modu berezia aurkitzeko.




---

## KORPORAZIOEN ERANTZUKIZUN SOZIALAREN JARDUKETA EREMUAK

---

### Alderdi ekonomikoak eta finantzazkoak

---

- Enpresaren egonkortasuna  
Enpresen gizarteari egindako ekarpen nagusia aberastasuna eta lanpostuak sortzea da. Beraz, irabaziak lortzea, enpresa egonkortzea nahiz hastea eta, horren ondorioz langileria mantentzea edo hastea ukatu ezineko parametroak dira enpresak gizarteari egindako ekarpena baloratzeko.
- Finantzazko kudeaketa  
Finantzazko kudeaketak erantzukizun sozialeko ekintzak eduki ditzake, eta, besteak beste, honako hauek aipa daitezke:
  - Kapitalaren soberakinak erantzukizun sozialeko inbertsioetara bideratzea (SRI)
  - Irizpide etikoen arabera lan egiten duten finantza erakundeak aukeratzea (aurrezki kutzak – banketxeak – banka etikoa)

### Antolaketa mailako alderdiak

---

- Jokabide kodeak  
Enpresa osoan indarrean dauden jokabide kodeak ezarri behar dira, enpresaren “eginkizuna”, “balioak” eta “ekintza printzipioak” jasotzeko. Erantzukizun sozialeko enpresaren eginkizunean, alderdi ekonomikoak eta finantzazkoak ez ezik, ingurumenari eta gizarteari lotutako alderdiak ere sartzen dira.
- Ingurumenari eta gizarteari lotutako urteroko kontuak  
Enpresak KESarekiko dituen kezken erantzuna urteroko kontuetan adieraz daiteke, eta gizarteari nahiz ingurumenari lotutako alderdiak kontuan hartzen dituen urteroko kontuen txostena egingo da. Urteroko kontu horiei “bottom-line hirukoitz” ekonomikoa - ingurumenekoa - soziala esaten zaie.
- Kudeaketaren gardentasuna - informazioa  
Erantzukizun sozialeko enpresaren ezaugarrietariko bat bere kudeaketaren gardentasuna da (eta ez bere know-how deritzonarena, jakina); izan ere, komenigarria da gizarteari beharrezko informazioa eta elementuak ematea, enpresen jokabidea baloratzeko.
- Langileen partaidetza  
Langileei eginkizuna eman behar zaie honako alderdi hauetan edo eurotarikoren batean:
  - Kudeaketan – erabakiak hartzean
  - Kapitalean (enpresaren forma soziala)
  - Enpresaren irabazietan (langileak eta beste alderdi interesatu batzuk –stakeholders)



- Alderdi interesatuek (stakeholders) parte hartzen dute enpresaren balioak, eginkizuna eta ikuspegia adierazteko orduan.  
Enpresak partaidetzarako bideak jartzen ditu stakeholders deritzenen esku.
- Aldaketaren kudeaketa  
Enpresak sentikortasuna dauka beste partaide batzuen egoerari dagokionez, batez ere bertako langileei dagokienez, krisialdian eta enplegua arautzeko uneetan.
- I+Gan egindako Inbertsioa / Heziketa  
Etengabeko heziketak eta I+G deritzon egindako inbertsioak enpresaren izaera berritzailea agerian jartzen dute eta hori enpresaren beraren nahiz langileen hobeko dira.
- Enpresaren politikaren osotasuna, edozein lekutan egonik ere  
Enpresa batzuk munduko eskualde desberdinetan finkatuta daude. Halako kasuetan, koherentzia mantendu behar da jokabidean, edozein lekutan kokatuta egon arren (Iparraldean edo Hegoaldean).
- Kalitatearen kudeaketa (UNE-EN-ISO 9000, EFQM...)  
Kalitatearen kudeaketan eta, hain zuzen ere, era bateko kalitateko ereduak azken bertsioetan (esate baterako, EFQM), KESari lotutako alderdi asko sartzen dira.
- Enpresan KESa kontrolatzeko sistema dago  
KESa enpresa estrategian eta horren eguneroko jarduketan sartzeak ebaluazioko eta kontrolko sistema ekar dezake, eta horren barruan, barne jarraipena, auditoriako kanpoko txostenak indarreko ekimenetarik baten kanpoko ziurtagiria (adibidez, SA 8000 de SAI), eta abar sartzen dira.

## **Legezko alderdiak**

---

Herri garatuetan badirudi enpresen oraingo legeriak eta ohiko jarduketak gaitzuta dituztela erabilera batzuk, baina legezko alderdian kontuan hartu behar dira, batez ere garapen urriagoko herrietan jarduten duten enpresen kasuan.

- Giza Eskubideen estandarrak betetzea
- Umeen lana, beste herri batzuetan  
Umeen lana oraindik ere ohikoa da garapen ekonomiko urriko herrietan. Enpresak, konpainiatik umeen eskulana ezabatzeaz gain (garapen urriko herrietan, batik bat), eragina izan dezake bere hornitzaileen jokabidean.
- Laneko segurtasuna eta osasuna  
Laneko segurtasuna eta osasuna ez da gai legala soilik. Borondateak garrantzi handia dauka laneko istripuak eta gaixotasunak murrizteko orduan. Hori dela eta, erantzukizun sozialeko enpresak, legea zorrotz betetzeaz gain (SO deritzon komitea, prebentzio



zerbitzua, prebentzioko teknikaria, prebentzioko ikerketak, osasun azterketak, banakako zein taldeko babesa...), laneko istripuen zein gaixotasunen historiaren eta zigorren historiaren jarraipen zehatza egin dezake, horiek murrizteko politika aktiboak proposatzeko, eta gainera, kanpoko erakundeen auditorien edo kontrolen menpe gera daiteke.

- \_ Ustelkeriaren aurkako borroka  
Enpresaren jokabide etikorako, jakina, ezinezkoa da Administrazioen aldetik lehentasunak iruzurrez lortzeko ahaleginean ibiltzea.
- \_ Legezko araudia betetzea  
Enpresaren zigorren historialak horren "jokoaren estiloa" eta gizartearekin nahiz berorren arauekin duen konpromisoa adierazten du.

## **Langileei dagokienez**

---

- \_ Kontratazio mota. Laneko egonkortasuna  
Kontratazioari lehentasuna emango zaio, laneko egonkortasuna eta laneko baldintza duinak bermatzen dituzten formulen bitartez, aldi baterako kontratuak baztertuta. Langilerian mantenamenduak langileekiko konpromisoa eta horiek enpresarekiko duten leialtasuna adierazten du, eta laneko giro egokia jartzen du agerian.
- \_ Bidezko ordainketa sistema  
Enpresaren ordainketa sistema baloratzeko adierazleatariko batzuk honako hauek izan daitezke:
  - \_ Soldata duina (lanbide arteko gutxieneko soldatetik edo hitzarmenaren parametroetatik gorakoa)
  - \_ Soldaten eskala (enpresako soldatarik handienaren eta txikienaren arteko lotura)
  - \_ Soldata / irabazia deritzonaren eta irabazietako partaidetzaren arteko lotura.
  - \_ Langileei egindako beste ordainketa batzuk (espezieetan, produktibitatearen arabera, stock.options deritzenak, pentsio fondoak, bizitza aseguruak...)
  - \_ Familietarako laguntzak (ikasketak, osasun laguntzak...)
- \_ Lanaren banaketa  
Gizarte garatuetan erabateko enplegurako dagoen joera enpresan aktiba daiteke, lanaren banaketaren bitartez.
  - \_ Aparteko orduak ezabatzea edo murriztea
  - \_ Lanaldiaren borondatezko murriztapena
  - \_ Lanaldia murrizteko joera (asteko 35 orduak)
- \_ Bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzea  
Langileek eta gizarte osoak erraztasun handiagoak eskatzen dituzte, bizitza pertsonalaren eta lanaldiaren arteko oreka lortzeko. Beste proposamen batzuen artean, honako hauek aipa daitezke:
  - \_ Baimenak edota lanaldi murriztapenak, familiako erantzukizunei aurre egiteko



- Baimenak edota lanaldiaren murriztapenak familiako menpekoak zaintzeko (umeak, zaharrak, elbarriak ...)
- Lan malgutasuna (ordutegiak)
- Haurtzaindegiak (lanean bertan edo horietarako laguntzak)
- Baimenak edota lanaldi murriztapenak, irakaskuntzari, politikari, gizarte zerbitzuei eta abarri lotutako jardueren ondorioz.
  
- Elkartzeko askatasuna eta taldeko negoziatziorako eskubidea  
Sindikatuaren ordezkariak egokia, zalantzarik gabe, erantzukizun sozialeko enpresen beste ezaugarri bat da, eta gainera, elkarrizketa sozialeko bide antolatuak egon behar dira (enpresa – langileen ordezkariak).
  
- Aukera berdintasuna  
Enpresek eginkizun garrantzitsua izan dezakete laneko aukera berdintasunean, generoaren, jatorriaren, pentsaeraren, arrazaren, erlijioaren edo beste edozeren arabera bazterkeriarik egin gabe.
  
- Barne sustapenerako aukerak  
Sustapenerako benetako aukerak irekita bultzatu egiten da langileek hobetzeko duten gogoia eta euren errealizazio pertsonala.
  
- Zuzendaritzaren eta langileen arteko komunikaziorako bideak  
Alderdi interesatuen arteko elkarrizketa, batez ere langileekiko elkarrizketa, enpresa kudeaketaren KES estiloaren ardatz nagusienetarikoa da. Horri dagokionez, komenigarria da zuzendaritzaren eta langileen arteko komunikaziorako bideak ezartzea, horien iradokizunak nahiz kekek jasotzeko, poztasun pertsonalari buruzko ikerketak egiteko, etab.
  
- Heziketako politikak daude  
Enpresak langileekin duen konpromisoa heziketako aukeretan ere adierazten da. Apustu horrek, gainera, eragin argia dauka enpresaren beraren hobari ekonomikoan, bertako giza kapitala hobetzen baitu.
  
- Ergonomiako eta lan osasuneko politika aktiboak  
Goian adierazitakoaren arabera dira, eta garrantzi handia dute ergonomiarako inbertsioek.
  
- Laguntza eta aholkularitza erretiroan, gaixotasunean eta kanporaketetan.

### **Hornitzaileei dagokienez**

---

- Hornitzaileen / azpikontratisten homologazioa  
KESaren estrategia balio – katearantz hedatzeko, KES politikak erabiltzen dituzten hornitzaileei edo azpikontratistei lehentasuna eman ahal zaie. Hori dagokienez, enpresak



hornitzaileen ebaluazioa edota homologazioa egin dezake, gizarteari, ingurumenari eta segurtasunari nahiz osasunari lotutako irizpideak kontuan hartuz.

- Hornitzaileei KESa ezartzeko emandako laguntza.  
Balio-katean presentzia nagusia duten enpresek buruzagitza-eginkizuna eduki dezakete, enpresaren erantzukizun soziala sustatzean, KES estiloa ezartzen duten hornitzaileei laguntza emanez (pizgarriak, heziketa, informazioa, tutoretza edo zaintza).
- Partaidetza aktiboa, horniduren katearen arriskuen kudeaketan  
Konpromiso sozial handia duten enpresa batzuek hornitzaileen arriskuak partekatze bidea hasi dute; horretarako, akordioak ezarri dituzte balio-katea osoko emaitza ekonomikoetan partaidetza solidarioa edukitzeko, eta horretan enpresa hornitzaileen jarduerak ere sartzen dira.
- Hornitzaileekiko elkarrizketarako bideak  
“Stake-holders” guztien kezken integrazioa agerian jartzen da hornitzaileekiko elkarrizketan, horien kexei emandako erantzun bizkorrean, iradokizunak egiteko aukeran...
- Legez kanpoko jarduketak edo etikoak ez direnak esate baterako, (umeen lana) egiten dituzten konpainiekiko negozio-harremanak ekidin behar dira.

### **Bezeroei dagokienez**

---

- Bezeroekiko elkarrizketarako bideak  
Horniduren kasuan bezala, bezeroekiko harreman bizkorrak eta zuzenak edukitzea enpresa hobekuntzaren elementua da.
- Produktuen eta zerbitzuen kalitateak segurtasunean eta ingurumenean duen eragina monitorizatzea  
Enpresa bere produktuen eta horiek epe luzean duten erabileraren erantzulea da. Enpresaren erantzukizuna, berriz, produktu edo zerbitzu horiek bezeroengan edo gizartean duten eraginarekiko kezkan ere gelditzen da agerian.

### **Komunitateari dagokionez**

---

- Dohaintzak edo ongintzako jarduketak  
KES jarduketa tradizional bat era guztietako ekintza filantropikoak egitea izan da. KESaren norainokoa ez ezagutzearen ondorioz, kontzeptu hori ongintzako jarduerak egitearekin lotzen da bakarrik. Izan ere, halako jarduketak enpresak gizartearekin duen konpromisoaren adierazleak dira, baina hori ez da enpresaren konpromiso bakarra. Ongintzako jarduera modu desberdinetan garatzeko modukoa da:
  - Babesak
  - Dohaintzak
  - Marketina



- Enplegatuek jarduketa komunitarioetan duten partaidetza
- Jabeek eta zuzendariak enpresa komunitarioetan duten partaidetza
  
- Gizarteratzea eta laneratzea
 

Konpromiso handiko enpresek lanpostuak gordetzen dituzte talde baztertuetoako edo bazterkeri arriskuan dauden taldeetako pertsonentzat (langilerik zaharrenak, emakumeak, iraupen luzeko langabetuak, ikasleak, elbarriak, gutxiengo etnikoak...). Herri batzuetako araudiek, bestalde, enpresek talde horietariko batzuentzat (elbarri fisikoak edo psikikoak) gorde behar dituzten enpleguen ehunekoa finkatzen dute. Enpresaren KES politikaren barruan, araudi horiek betetzeko konpromisoa sar daiteke eta gainera, laneratzea legeak ezarritako mugak baino harago eraman daiteke, nahi izanez gero.
  
- Komunitateko inplikazioa
 

Hurbileko komunitatearen garapenean inplikatzeko erantzukizun sozialeko enpresaren beste erroka bat da. Lankidetzaren horren adibide batzuk honako hauek izan daitezke:

  - Tokiko enpleguaren sorrera
  - Tokiko agintarietarako lankidetzaren
  - GKEetarako lankidetzaren
  - Enpresaren egintza soziala
  
- KESaren zabalkundea
 

Enpresa KESaren kulturaren eragile nagusia da. Horrenbestez, kultura horren zabalkundean ere parte har dezake, bai bezeroei nahiz hornitzaileei informazioa emanez, bai kanpoko irudian edota produktuen etiketatik KESaren bereizgarriak sartuz.
  
- Tokian tokiko ohiturekiko eta kulturarekiko sentikortasuna
 

Batez ere herri desberdinetan jarduten duten enpresen kasuan, enpresa tokian tokiko ohituretara eta kulturara egokitzea (ordutegiak, ikurrak, janariak, jaiegunak ...) KESaren politikaren barruan egon daiteke.

## **Ingurumenari dagokionez**

---

- Ingurumen politika
 

Enpresa batek ingurumenarekiko duen konpromisoa modu askotan adieraz daiteke. Ingurumen politika baten barruan jarduera asko sartzen dira:

  - Hondakinen kudeaketa
  - Produktuaren bizitza-ziklo osoaren kudeaketa
  - Produktuaren optimizazioa – materialaren nahiz energiaren kontsumoaren minimizazioa
  - Prozesuen optimizazioa
  - Energia berriztagarriaren lorpena
  - Hornitzaileei egindako eskakizunak



- Enpresaren ingurumen kudeaketako sistema kontrolatzeko sistema bat dago  
Ingurumena kontrolatzeko jarduerak enpresaren ingurumen kudeaketako sisteman ezarritako prozeduren bitartez antola daitezke. Sistema horiek ezartzeko beharrezkoak dira barruko jarraipena eta kanpoko egiaztapena.
- Kanpoko estandarren arabeko homologazioa (ISO 14001, EMAS)  
Enpresa gero eta gehiago kanpoko erakundeen ziurtagiriak lortzen ari dira, ingurumen kudeaketako sistemetarako.
- Ziurtagiri ekologikoa duten produktuak  
Administrazio edo erakunde batzuek eskainitako beste aukera bat ziurtagiri ekologikoa da; horrek etiketa bereizgarriak jartzeko aukera ematen du, ingurumena errespetatuz fabrikatu diren produktuetan.

### **Administrazioei dagokienez**

---

- Fiskaltasun arduratsua  
Kritika guztien gaineratik, ezin da ahaztu herri administrazioen fiskaltasuna eta aurrekontuak herrien aberastasuna banatzeko elementu nagusiak direla. Horri dagokionez, gizartearekiko konpromisoa duen enpresa batek fiskaltasun arduratsua egingo du, zintzoak ez diren jarduketak baztertuz, ihes fiskalean, epeko ordainketan eta abarrear.
- Tokiko garapen ekonomikoan egindako integrazioa  
Herri administrazioek enpresen lankidetzaren behar dute, eskualdeen garapenerako, zenbait arlotan: gazteen enplegurako plana, ekonomia narriatuko eskualdeen suspertze ekonomikoa...
- Araudi berriei aurrea hartzea  
Indarreko araudia betetzeaz gain, enpresak zaintzako jarrera ere izan dezake, arauetan etorkizunean egon daitezkeen eskakizunetarako prest egoteko.
- Araudi eta arauketa berrien prestakuntzan izandako partaidetza  
Administrazioaren eta enpresen arteko lankidetzaren funtsezkoa da, arauketa egokirako, batik bat produkzio prozesuei eta produktuei dagokienez. Erantzukizun sozialeko enpresak lankidetzaren eskain dezake, araudi edo arauketa berriak egiteko.
- Administrazioekiko lankidetzaren jardun behar da, Administrazioeko kontratuen eta horniduren adjudikazioan KES irizpideak sartzeko.



---

## ONDORIOAK

---

KESaren eraginpeko enpresa jarduera asko azaltzeko ahalegin honek lan-eremu asko proposatzen ditu. Kasu bakoitzean aplikatu beharreko eredua (erantzukizun sozialeko enpresaren eredua) enpresa bakoitzaren egoeraren nahiz gaitasunen arabera izango da, baita enpresaren jabeen edo kudeatzaileen balio etikoen arabera ere.

Agiri honetan, enpresak kezka sozialak eta ingurumenekoak bere jardura ekonomikoan sartzean aurkituko dituen aukera itzelak adierazi nahi izan dira. KESak ez ditu ekintza filantropiko isolatuak edo langileei eman beharreko laguntzak soilik jorratzen; izan ere, KESa enpresan sartzeko, goitik beherako aldaketa behar da enpresaren pentsaeran, eta bertako estrategian balio berriak sartu behar dira.

Enpresa ulertzeko modu berri horren aldeko apustua egiten duten konpainiek erronka itzela dute eskuartean. Bakoitzak bere KES politika aukeratuko du, baita helburu hori lortzeko bidea, “stake-holders” deritzenekiko harremanak eta abar ere, enpresa bidezko garapen jasangarria lortzeko funtsezko eragilea izateko.